



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20037

Lankidetza Hitzarmena **Convenio de Colaboración**

Andoaingo Udalaren eta AITA LARRAMENDI IKASTOLA KOOP.ELKren arteko
Lankidetza Hitzarmena.

Andoainen, sinaduraren datan.

Bildurik:

B atetik, **Marta Lasa Goñi**, Hezkuntza eta Kultura lansaileko Zinegotzi Ahaldun gisa, Andoaingo Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Toki Jaurpideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean xedatutakoaren arabera.

Eta bestetik, Aitor Iriondo Arana, ***8126** zenbakiko NAN duena, F20144556 IFZ duen AITA LARRAMENDI IKASTOLako Zuzendari gisa (Zentro kodea: 012309).

Bertan da baita ere Udaleko Idazkaria den **Unai Rekondo Pérez jn.** egintzaren fede emateko.

Bi aldeek elkarri behartzeko nahikoa gaitasun juridiko aitortzen diote eta jarraian aipatzen denaren arabera ekiten dute:

Administrazioko aurrekariak

Aita Larramendi ikastolak, aurrerantzean IKASTOLA, gaur egun 43. poligonoan eta Rikardo Arregi kalean dauden eskoletako eraikin eta patioak erabiltzen ditu, horiek guztiak Udalaren jabetzakoak direlarik.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa kontuan hartuta, hau da, "Udalerriek jarraitu ahal izango dute garatzen lege hau indarrean sartzean gauzatzen ari ziren jarduera, zerbitzu edo prestazioak, nahiz eta eskumen propioen esparruan ez egon, eta eskuordetu edo trasferituak izan ez diren arren. Kasu horretan, ez da aplikatuko lege honen 16. artikuluaen zazpigarren eta zortzigarren paragrafoetan xedatutakoa". Hori guztiori, Udalak, hala balegokio, etorkizunean jardunbidea izapidetzearen eta aipatu paragrafoetan adierazitako txostenak eskatzearen kalterik gabe.

Kasu honetan udal eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak gauzatzeari buruzko, ekainaren 25eko, 93/2019 Dekretuaren 7. artikuluan araututako prozedura jarraitu da eta dagokion txostenak eskatu dira (Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzak Departamentuari).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak aldeko txostena egin du 2022ko irailaren 12an, non adierazten du, finantza iraunkortasunari dagokionez, aztertutako datuetatik ondorioztatu daitekeela Andoaingo Udalaren finantza iraunkortasuna ez dela arriskuan jartzen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzak txostena egin du 2022ko urriaren 20an, non adierazten du: Aginduan, 16. artikuluan (Bateragarritasunak). Adierazten du deialdi honetan aipatzen diren laguntzak bateragarriak direla beste edozein administrazio publikok emandakoekin, betiere laguntza horien baturak gainditzen ez badu agindu honetan jasotako diruz laguntzeko moduko zenbatekoaren zenbatekoa. Gainditzen bada, soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio agindu



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Lankidetzeta Hitzarmena Convenio de Colaboración

honen arabera emandako laguntzari. Era berean, bateragarriak dira hezkuntza-ituna eskola-unitate bakoitzeko mantentzeko modulu ekonomikoaren birjarpen- eta inbertsio-partida jasotzearekin. Horregatik, bi aldeak ados daude hitzarmena sinatzeko, eta honako oinarrien arabera egingo dute:

Hitzbaketak

1. Udalak, 2026. urtean, bere laguntza emango du oinarritzko edo lehengo hezkuntzaldiari eta haurren hezkuntzaldiari dagokien eraikinen mantenu eta konponketa gastuentzat. Horretarako, 2026ko udal aurrekontuan, 1.0500.481.326.30.01 eta 378 zenbakia duen partidaren kargu, **44.180 €** daude.
2. Hitzarmenaren xedea da 2026rako Aita Larramendi itunpeko ikastetxea zaintzeko eta konpontzeko gastuak finantzatzen laguntzea:
Mantenu gastutzat ondokoak hartuko dira:
 - . Eskolazaina.
 - . Garbiketa zerbitzuak.
 - . Garbiketarako tresna eta gaiak.
 - . Berogailuko erregaia.
 - . Ura, gasa eta argindarra.Konponketa gastutzat hartuko dira ondoko lanei dagozkienak:
 - . Kristalak, ateak, leihoak, instalazio elektrikoa, berogailua, hodiak, kanpoaldeko hesi metalikoak konpondu edo berritzea.
 - . Eraikinen barrualdeko ate, pareta, fatxada, teilatuak eta abar zaharberritzea eta egokitzea.
 - . Patioetan ateak eta saskiak konpondu eta berritzea.
3. Dirulaguntza hau maiatzaren 27ko 1500/2026 alkatetza dekretu bidez onartu den Dirulaguntzen 2026-2028ko Plan Estrategikoan sartuta dago.
4. Ikastolak Udalari txostena aurkeztu beharko dio lauhilero, eta txosten horretan egindako gastuen azalpen ziurtatua egin beharko du faktura originalak ala Udaletxean konpultsatutakoak aurkeztuz.
5. Onarturiko diru kopurua, "mantenimendu eta konponketen gastuak" lauhileroko txostena Udalak eskuratu eta hilabete burutu baino lehen ordainduko zaio Ikastolari.
6. Hitzarmenak ezin ditu ordeztu hirigintzako eta ingurumeneko lizentziak eta baimenak emateko prozedurak.
7. **Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.**

Dirulaguntzaren zuriaketa azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei Buruzko Lege Orokorreko 29. artikulutik 33. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera izango da.

Andoaingo Udalak, Kultura eta Hezkuntza saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, **2027ko urtarrilaren 15erako**, Udalean aurkeztu beharko du dirulaguntzaren xede duen proiektuaren garapenaren memoria bat. Bertan 2026ko ekimena burutzeko aurreratu diren gastuei buruzko azalpenan emango dira.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo

Lankidetza Hitzarmena **Convenio de Colaboración**

administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Diru-laguntza 60.000,00 €-tik beherakoa denez, zuriaketarako kontu laburtua erabil daiteke dirulaguntza zuritzeko. Jarduera osoa eta dirulaguntzako gastu osoa zuritu beharko da.

8. Urtero “mantenimendu eta konponketa gastuak” atalean gastaturikoak ez du gaindituko Udalak aurrekontuan jasorikoa, baldin eta ez bada ezinbestez egin beharreko premiazko lanengatik, beti ere aurrez Udalarekin adostu eta horiek egitea erabaki denean.
9. Ikastolak eraikin horien erabilera egingo du, beti ere aipatu erabilera hezkuntza izaerakoa baldin bada. Biztanleria eskolarra jaitsiko balitz eta kontuan izanik ikasgelarik hutsik gera litekeela, horien gainean eman beharreko erabilera Udalaren eskumenean izango da.
10. Bi aldeak behartuta daude hitzarmen hau betetzera, dagozkien hitzbaketetan, eta hemen aurreikusten ez diren kasuetarako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea hartuko da kontuan berariaz.

11. Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin.

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Andoaingo Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzat hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

12. Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunani edo izaerari atxikirikoa arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

13. Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, udalak behar izanez gero, eta ikastetxeak libre edukiz gero, Ikastolak behar diren lokalak utziko dizkio udalari.

14. Hitzarmen honetatik sor daitezkeen arazoei izaera juridiko eta administratiboa izango dute eta eskudun diren



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Lankidetza Hitzarmena **Convenio de Colaboración**

auzitegiek konpondu beharko dituzte. Hala ere, hori egin aurretik, hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde paritarioa bilduko da. Batzorde hori hitzarmena sinatzen denean izendatzen diren pertsonak osatuko dute.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Andoaingo udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarrikoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

15. Eskumeneko Jurisdikzioa.

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegiei, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

16. Patioen erabilera publikoa.

a) Andoaingo Udalak adierazi du eskolaz kanpoko ordutegian Aita Larramendi Ikastolako eraikineko patioen erabilera publikoa ahalbidetzeko interesa duela, herritarrek espazio horiek aisialdirako eta kirola egiteko erabil ditzaten.

b) AITA LARRAMENDI IKASTOLAKO patio irekiaren erabilera publikoa honela egingo da (Txistoki pasealekutik sarrera zuzena duena, saskibaloia eta futbol zelaia dituen):

1. Ordutegiak:

Jendaurreko ordutegia honako hau izango da:

1. Astelehenetik ostiralera: 18:00etatik 21:00etara
2. Larunbata, igande eta jai-egunetan: 9:00etatik 21:00etara

2. Udaltzaingoa arduratuko da instalazioak itxeaz erabilera publikoko ordutegia amaitu ondoren.
3. Udaleko Zerbitzu Saila arduratuko da patioa garbitzeaz astelehen eta ostiral goizetan.

c). Ikastetxeko gainontzeko patioak, hau da, frontoi estalia eta ingurukoak, eskola jardura amaitu ondoren publikoari itxita mantenduko dira.

d) Andoaingo Udalak bere gain hartzen du erabilera publikoko ordutegien barruan patioan sor daitezkeen eragozpen eta kalteen erantzukizuna.

e). AITA LARRAMENDI IKASTOLAK hitz ematen du patioa baldintza onetan izango duela erabilera publikorako, eta edozein gorabehera jakinaraziko diola Udalari, zerbitzu hori zati batean edo osorik eman ezin bada.

f) AITA LARRAMENDI IKASTOLAK, patioen atea ireki eta ixteko eta garbiketa zerbitzuak egiteko, dagokion giltzaren bi kopia lagako dizkio Udalari.

17. Hitzarmen hau 2026an bakarrik egongo da indarrean.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

Eta ados daudela adierazteko, bertaratutakoek lankidetza hitzarmen hau sinatzen dute, goian adierazitako datan eta tokian.

Udalaren izenean

AITA LARRAMENDI IKASTOLA KOOP.ELKren izenean

Marta Lasa Goñi

Aitor Iriondo Arana

Idazkaria

Unai Rekondo Pérez



EKS | CSV: ESKU50c846e6-373a-4e3d-acea-13c1df36b085

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>